

hondo-hondotik

Emilio Olabarria Muñoz

(EAJko legebiltzarkidea eta Botere Judizialaren Kontseiluko kide ohia)

Zerrenda

Europako batzordeak egin berri duen zerrendan erakunde terroristak eta berauen laguntzaileak bateratzen ditu, zuzenbidearen arloan eta hezkuntza mailan zalantza esanguratsuak sortuz.

Zerrenda horrek ezartzen duen lehenengo zalantza metodikoa bere helburuari berari dagokio. Ez da batere erraza asmatzea zein den antolakuntza terroristen zerrenda idaztearekin Europar Batasunak duen helburua (modu orokorrean baino ez baita azaldu), are zailagoa da Batasuneko Antolamenduko zein atalek ematen dion ahalmena Europako Batzordeari elkarte bat terroristak edo terroristaren laguntzaile izendatzeko. Ez da erraza erabakitzea edo asmatzea zeintzuk izango diren elkarte bati horrelako izen bat emateak ekar litzakeen ondorioak, benetan zalantzazkoa izanez Europa mailako zigorrek ezartzeko araudia existitzea.

Edozein elkarte edo antolakuntza lege kanpoko izendatzeko, herrialde demokratikoetan Justizi Administrazioari dagokio beren beregi lege mailako funtzioen jardunbidearen eta dagozkien arau penalen aplikazioaren bitartez. Gainera, Zigorren arloan bereziki arautzen duen legezkotasun printzipioaren oinarritzko eskabidea da. Legearen mundua zabala da, botereen banaketa eta botere judizialaren askatasuna dira edozein estatu demokratikoren arau nagusi. Arestian azaldutakoa, begi bistan dagoena esatea baino ez dena, Europar Batasunak bere organo beteazlearen bitartez elkarte batzuk legekoak diren ala ez erabakitzean eta berauen kontra zigorrek ezartzean, egin beharreko lana ilundu besterik ez du egiten; nahiz eta zigorra antolakuntzen diru iturriak ixte soilen oinarritzen den.

Estatu Espainolean eta Batasuneko gainontzeko estatuetan beharrezko lege mailako aurrekariak daude elkarteen legezkotasuna erabaki ahal izateko. Espainiako Kode Penaleko 515. artikulua dioen arabera, honakoak dira lege kanpoko erakundeak:

—Delitua betetzea helburu dutenak.
—Erakunde armatuak, antolakuntza edo talde terroristak.

—Legezko helburua izan arren, bortxazko bitartekoak edo nortasuna kontrolatze-koak erabiltzen dituztenak.

—Biztanleriaren zati bat beldurraraztea helburu dutenak, arrazoiak etnikoak edo politika eta erlijio mailakoak direla, eta biktimak gutxiesten dituztenak.

—Izaera paramilitarra duten erakundeak.

Erakunde bat lege kanpoko dela erabakitzeak, Kode Penalak bidea ematen du, eta dagokion zigorra epaileek zehaztu eta jartzen dute. Arlo honetan Jurisdikzioaren Araubide Penalak baino ez du jarduerarik, eta ezin dira estatu edo Europa mailako beste arloetatik datozen ekimenak onartu.

Europar Batasunak egindako erakunde zerrenda, eremu berean zigorneurriak ezartzeko helburua dela, Justizi Administrazioari Estatu guztietako Konstituzioek emandako zuzenbide mailako funtzioan oztupo egitea da. Zerrenda egitean, epaitegiek izan beharreko legeen interpretaziorako gaitasun askean jartzen da oztopoa, eta Batasuneko Hitzarmenean eta inolako araudian aurreikusten ez den estatuz kanpoko egite-eremua ere sortzen du (*eurojust* izeneko eratzten duen 1998ko Batasuneko Jardunean ere ez da zehazten). Aurreko hausnarketa hauek guztiak Europa mailako hainbat epailek dituzten kezkek dira.

Benetan bitxia da Europar Batasunak egin duen zerrendak elkarte terroristak eta aurrekoen helburu bera duten elkarrekin bateratzea. Horixe bera da Auzitegi Nazionalen epaile ezagun batek duen iritzia bera, Estatu Espainoleko terrorismoaren tipo penala zehazten duten tipoen interpretazio zabaltzaile, luzatzaile eta analogikoa kontuan hartuz (Zuzenbide Penaleko oinarri orokorra da bidegabe penala zehazten duten aginduen interpretazio zabaltzaile eta analogikoa ezinezkoak direla esaten duena).

Auzitegi Nazionalen epailearen baten arabera erakunde terroristaren batean sartuta egoteak dakarren delitua horrelako antolaketetan egotea ez ezik (batez ere 515 artikulua eta Kode Penaleko artikuluek azaldu bezala) helburu bera duten erakundeetan sartuta egotea ere bada.

«Erakunde terroristak baten helburu bera bilatzea» adierazpena kontzeptu metajuridikoa da guztiz. Erakunde batek talde terroristak baten helburu berberak bilatzen dituen edo ez erabakitzeak tresna nahikorik ez du Antolamendu Juridikoak. ETA bezalako taldeak eta beste batzuek hainbat helburu dituzte, guztiz lege kanpokoak; baina helburuak politikoak direnean ezin dira lege kanpokoak izan (ideien arloan dagoen ezer ezin da lege kanpokoat hartu; berau lortzeko erabiltzen den metodologia beste arlo bat litzateke, eta hori bai izan daitekeela guztiz zigorgarria).

Helburu berberak izatea, guztiz laban- korra den eztabaidara eraman gaitzake, delituzko erakunde abertzale batzuek dituzten helburuak legeko alderdi abertzale demokratikoek dituzten berberak izan daitezkeelako. Delituzko erakunde marxista edo anarkisten helbu-

ruak ezkerreko hainbat alderdi politikok dituztenekin pareka daitezke, eta era berean sindikatuenak, elkarte kulturalenak edo globalizazioaren kontrako taldeenak ere. Horrela luze jarrai genezake.

Demokratikoki ohiz kanpokoak diren jardunak izan ditugu ikusgai azkenaldion, eta hala eta guztiz ere ez dira medioetan gaitzetsi. Gobernuaren terrorismoaren kontrako politika eta batzuekin zein besteekin hitz egiteko ahalmena zehaztu gura dute, publikoki, hainbat epaile eta fiskalek (Botere Judizialaren Lege Organikoak debekatu egiten die epaileei horrelako adierazpen politikoak edo ideologikoak egitea). Aurrekaririk gabeko diziplina kontrolatzeko neurriak egiten dira Magistratu batzuen kontra (Auzitegi Nazionalen IV. Atalekoak, hain zuzen) fiantzapean eta aske dagoen preso baten ihesagatik, egoera berean ihes egindako presoak ehunka zenbatu ahal direnean. Magistratu berauek auzitara eraman izan ditu

Estatuko Fiskal Nagusiak (IV. Ataleko Magistratuek ere egin dute sarritan Garzon epailearen autoen kontra, oinarri juridiko nahikoak izanda). Inoiz ez da hain beharrezkoa izan edozein egoera deliktiboren kontrako legeko jardun baka-

rra Zuzenbidezko Estatuari berari erantzuten diona dela argi uztea.

Azkenik, eta zuzenbidezko eztabaidan jarraituz, norbaitek azaldu beharko liguken nola inoiz legeko izaera izan ez duten erakundeak lege kanpokoak izatera irits daitezkeen. Horretaz aparte, XAKI edo Amnistiaren Aldeko Batzordeetako inork delituzko jokabideren batengatik erantzunkizuna izatea. Ondo ezaguna baita pertsonak eta ez erakundeak direla delitua egiteko gaitasuna dutenak.

ZERRENDAREN OSAKETA

Norbaitek azaldu beharko liguken nola inoiz legeko izaera izan ez duten erakundeak lege kanpoko izatera irits daitezkeen

hemeroteka

■ ARGIA

Ardatza

(Karmelo Landa)

Ardatza behar du Euskal Herriak. Azken hogeita bost urteotako politikagintzak edo herrigintzak ez diote euskaldunon herriari bikarrezurrik osatu, eta une honetan zaila gertatzen zaigu euskaldun hitzari paualekua eskaintzen politikan, hizkuntzen eremuan edota, besterik gabe, geografian.

Kontzertuak ere deskontzertu bihurtu

zaikigun honetan, euskaldunon aberria eraikitzeak jaio bide zen alderdiak bi probintzietara murrizten ditu bere domeinuak, eta era defentsiboan kokatzen du bere joikabidea Estatu ahalduen aurrean, menpean ez esatearren. Ez dago gure lurraldea elkarlotzen duen garraio eta komunikabide egokirik; unibertitateak lotsa da euskaldun hitza ere bere hartzeko; bost arautegi bereizturen menpe jarri digute euskara, eta beste hainbeste erdal te- lebistaren azpian.

(...) Euskal Herriari bere osotasunetik eskaini behar zaio ardatza, eta horretarako herrigintza eta poilitikagintza kontzer-

tatu behar dira, nazio mailako eragileen artean. Eragile guzti-guztiak kontzertatu, alegia, bat bera ere bazterrean utzi gabe, eta sistema demokratiko integrala adostu, gatazkari konponbidea eman eta elkarbizitza baketsua ekarriko duena.

(...) Estrategia eraikitzaile hori ezin da alderdi batena edo besterena izan, definitzior kontzertatua izan behar duelako: lortu behar dugu euskaldunok nazio-sistema anitz, demokratiko eta, beraz, kontradiktoria izango dena aurretik adostea, gure arteko kontradikzioak era natural eta demokratikoan nazio beraren baitan plaza- ratu eta konpondu ahal izateko.

■ LA JORNADA

Europa, Berlusconi eta Argentinaren artean

(Manuel Vazquez Montalban)

(...) Argentinari begira, europarrek inbertitzaile onaren irudia eman nahi dute, argentinarrak askok herrialdearen zorra handitzea egotzen dielako. Berlusconi dagokionez, arazoa larritu egiten da, europartasunaren barruko zatiketa islatzen duelako, hain justu Italian, Europa-ko Batasunaren sortzaileetako batean.